



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko otsailaren 13a

14. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza, informazio eta aholkularitza zerbitzu bat berma dezan Nafarroako gay, bisexual eta transexualentzat. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erregelamenduz arau dezan gurasoen mahai baten eratzea, ikasleen gurasoen elkarteek beren federazioen bidez parte hartzeko organo kolegiatu bat izanen dena. Hezkuntza Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da interes publikorako kaltegarritzat deklaratu ditzan Iruña-Logroño autobiar buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitzeko, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuaren klausulak. Ekonomia eta Ogasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Legebiltzarrean aurkez dezan Nafarroako II. plan gerontologikoa. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak bazter utzia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Antsoingo Doña Mayor de Navarra ikastetxe berrian ireki ditzan eskualde horretan beharrezkoak diren D ereduko lerroak. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (4. or.).
- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeko lan-talde bat eratzeko eskaera, tren-azpiegiturek Nafarroan izan beharreko eredu, inbertsio eta etorkizuneko jarduerak aztertu eta horiei buruzko proposamenak egiteko. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak bazter utzia (4. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Liburutegi Publikoen funtsak informatizatzeko prozesuaren atzerapenari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (5. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuko lehendakartzarako PP alderdiko hautagaiak immigrazioaren inguruan egindako proposamenak onartzeari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egin (5. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza, informazio eta aholkularitza zerbitzu bat berma dezan Nafarroako gay, bisexual eta transexualentzat.**

*FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETARAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak, 2008ko otsailaren 5ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza, informazio eta aholkularitza zerbitzu bat berma dezan Nafarroako gay, bisexual eta transexualentzat".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza, informazio eta aholkularitza zerbitzu bat berma dezan Nafarroako gay, bisexual eta transexualentzat**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako gay, lesbiana, bisexual eta transexualendako arreta, informazio eta aholkularitza zerbitzua berma dezala.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erregelamenduz arau dezan gurasoen mahai baten eratzea, ikasleen gurasoen elkarteek beren federazioen bidez parte hartzeko organo kolegiatu bat izanen dena.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2008ko otsailaren 5ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da erregelamenduz arau dezan gurasoen mahai baten eratzea, ikasleen gurasoen elkarteek beren federazioen bidez parte hartzeko organo kolegiatu bat izanen dena".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erregelamenduz arau dezan gurasoen mahai baten eratzea, ikasleen gurasoen elkarteek beren federazioen bidez parte hartzeko organo kolegiatu bat izanen dena**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erregelamenduz arau dezan gurasoen mahai baten eratzea, ikasleen gurasoen elkarteek beren federazioen bidez parte hartzeko organo kolegiatu bat izanen dena, administrazioarekin batera azter ditzan bere interesekoak diren hezkuntzaren arloko gaiak.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da interes publikorako kaltegarritzat deklaratu ditzan Iruña-Logroño autobitari buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitzeko, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuaren klausulak.**

*EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak, 2008ko otsailaren 7an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da interes publikorako kaltegarritzat deklaratu ditzan Iruña-Logroño autobitari buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitzeko, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuaren klausulak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da interes publikorako kaltegarritzat deklaratu ditzan Iruña-Logroño autobitari buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitzeko, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuaren klausulak**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtarrilaren 29ko 97/2004 eta apirilaren 12ko 296/2005 Foru Aginduen babesean eginiko administrazio-egintzak, Iruña-Logroño autobia eraiki, zaindu eta ustiatzeko herri lanen emakidarako kontratuko klausulak aldatu zituztenak, interes publikorako kaltegarritzat deklaratu ditzan. Egintza horien bitartez prezioak berrikusten dira, azken prezioaren kalkulurako eta obra hura uste baino lehen zerbitzuan jartzeagatik eman beharreko ordainaren kalkulurako. Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen du egintza horiek administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenan aurkatu ditzan, aipaturiko deklarazioaren ondorio gisa.

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da Legebiltzarrean aurkez dezan Nafarroako II. plan gerontologikoa.**

### *FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETARAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernuia premiatzen da Legebiltzarrean aurkez dezan Nafarroako II. plan gerontologikoa."

Legebiltzarreko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak, 2008ko otsailaren

5ean egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko abenduaren 14ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da Antsoingo Doña Mayor de Navarra ikastetxe berrian ireki ditzan eskualde horretan beharrezkoak diren D ereduko lerroak.**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernuia premiatzen da Antsoingo Doña Mayor de Navarra ikastetxe berrian ireki ditzan eskualde horretan beharrezkoak diren D ereduko lerroak"

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak, 2008ko otsailaren 5ean egindako bileran, erabaki

zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko azaroaren 23ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 5an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeko lan-talde bat eratzeko eskaera, tren-azpiegiturek Nafarroan izan beharreko eredu, inbertsio eta etorkizuneko jarduerak aztertu eta horiei buruzko proposamenak egiteko.**

### *HERRI LAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak, 2008ko otsailaren 6an egindako bileran, erabaki zuen Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko eskaera baztertzea. Eskaera horren bidez Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeko lan-talde bat

eratzeko proposatzen zen, tren-azpiegiturek Nafarroan izan beharreko eredu, inbertsio eta etorkizuneko jarduerak aztertu eta horiei buruzko proposamenak egiteko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Liburutegi Publikoen funtsak informatizatzeko prozesuaren atzerapenari buruzkoa.***PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako gaurkotasunezko galdera, Nafarroako Liburutegi Publikoen funtsak informatizatzeko prozesuaren atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ahoz erantzuteko honako ezohiko galdera aurkeztu du, otsailaren 14rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak erantzun dezan.

Liburutegiak informatizatzeko prozesua abian jarri zenetik hamar urte joan direlarik, zergatik ez daude oraindik automatizatuta Nafarroako liburutegi publiko guztietako funtsak?

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

**Galdera, Espainiako Gobernuko lehendakaritzarako PP alderdiko hautagaiak immigrazioaren inguruan egindako proposamenak onartzeari buruzkoa.***ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasunezko galdera, Espainiako Gobernuko lehendakaritzarako

PP alderdiko hautagaiak immigrazioaren inguruan egindako proposamenak onartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasuneko honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Hurrengo hauteskundeetan Espainiako Gobernuko lehendakariarako hautagai eta UPNren kide Mariano Rajoyk joan den astean immigrazioaren inguruko bere programaren zati bat iragarri zuen.

Integrazio kontratuan sartuko dituen neurrien artean daude Espainiako ohiturak onartzea, hizkuntza ikastea edo ikastetxeetan beloa debekatzeta.

Jakin nahi nuke ados ote dagoen PPK eginiko proposamenekin eta zertan eragiten dioten Nafarroari.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	